



ARMAGABETZEA
ETA URTE BAT GEROAGO
Bilana, erronkak eta perspektibak

Baiona / Biarritz, 2018ko Apirilak 6, 7 & 8





ANTOLATZAILEAK

bakebidea.

LE CHEMIN DE LA PAIX

2012ko urriaren 12an sortua, Bake Bidea Ipar Euskal Herriko mugimendu zibil bat da. Elkarrekin, sindikatuetatik eta alderdi politikoetatik datozen pertsonen, hautetsi eta jurista batzuek edo norbanakakoek osatzen dute.

Bake bidearen helburuak:

- endartea bere osotasunean sentsibilizatzea eta mobilizatzea bake prozesuaren gaiari buruz.
- Aieteko bide orriaren inguruan eztabaida eta iniziatiba guneak sortzea

Bake Bideak bere sorreratik gertakari desberdinen antolaketan parte hartu du :

- Baionako Bakerako foroak (2012/2014)
- Tokiko biltzar publikoak (2013)
- Iruña, Bilbo eta Gernikako bake prozesua indartzeko Foro sozialak (2013/2014/2016)
- Euskal Herriko bakearen aldeko konferentzia humanitarioa Parisen (2015)
- « Presoak eta bake prozesua » mintegia, Pariseko Sorbona Unibertsitatean (2016)
- « Armagabetzea bake prozesuaren zerbitzuko » foroa Biarritzen (2017)
- Euskal herriko edo nazioarteko bake prozesuko eragileekin topaketak (2012tik 2016ra)
- Foroa «Armagabetzea bake prozesuaren zerbitzuko» 2017-ko martxoaren 17 eta 18 -an.

Informazio gehiago:
www.bakebidea.com



BAKEGILEAK

2016an, azken 5 urtetan Euskal Herriko bake prozesuak bizi zuen blokeo egoeraren aurrean, gizarte zibiletik zetozen hiru pertsonalitate (Michel Berhocoirigoin, Jean-Noel Etcheverry "Txetx" eta Michel Tubiana) ETArekin harremanetan sartu ziren eta bere armategiaren ardura haien esku uzteko eskatu zioten.

2016ko abenduaren 16an, ETA erakunde armatuaren armategiaren %15a erabilezin uzteko lanari lotu ziren Luhuson. Beste hiru pertsonekin batera, Michel Berhocoirigoin eta Jean-Noel Etcheverry "Txetx" polizia frantsesagandik atxilotuak dira. Tokiko biztanleriaren mobilizazio handiaren ondorioz, justizia kontrolpean aske gelditu ziren, memento hartan eman zitzaien "Bake Artisauak" izena.

2017ko apirilaren 8an, Baionan, ehunka bakegileekin batera, "Armagabetzearen eguna" antolatzen dute, ETArekin armategi osoa Frantses autoritateen eskuetan utziz. Baionan 20.000 pertsona bildu ziren urrats historiko horren sustengatzeko eta gatazkaren beste ondorioei ere (elkarbizitza, biktimen aitortza eta erreparazioa, euskal presoek gaia...) aterabide bat aurkitu behar zitzaiola eskatzeko.

Konbentzituak armagabetzeak perspektiba berriak ideki behar lituzkela, Bakegileek laster jakinarazi zuten beren engaiamendua segituko zutela, gatazkaren ondorioen atalean : biktimen gaiaren inguruko gogoeta talde bat sortuz eta, 2017ko abenduaren 9an euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurrien bukaera eskatzeko manifestaldi bat antolatuz Parisen.

Informazio gehiago:
www.artisansdelapaix.eus



Foroaren aurkezpena

2017ko apirilaren 8ak ezin baztertu zoko etapa bat markatu du Euskal Herriko bake prozesuan. Gatazken konponbideen historian lehen aldiz, jendarte zibilari esker gauzatu da ETA erakunde armatuaren armagabetzea, Bakearen Artisauen laguntzaz.

2011ko Aieteko adierazpenetik ematen ari den aitzinamendu historiko hau, erakunde desberdinen, ipar Euskal Herriko hautetsien eta jendarte zibilaren artean handituz joan den dinamikaren fruitua da.

Elkarrekin burutu esperientzia kolektibo honek, aitzina egiteko beharra erakutsi du eta jendartea konbentzitu du gatazkaren ondorioei aurre egiteko.

Horregatik, biktimen ezagutzaren, erreparazioaren eta egiaren gaia ezinbestekoak iruditu zaizkigu, euskal presoentzat konponbide bat atxematearen beharrarekin batera.

2017ko abenduaren 9an, Bakearen Artisauak, Parisen, euskal gaiari buruz, inoiz egin den manifestazio handienara deitu zuten. Manifestazioa Euskal Herriko bakearen alde eta euskal preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespen neurrien kontrakoa zen.

Euskal Elkargoak sustengatu zuen eta ipar Euskal Herriko hautetsi gehienek dei egin zuten bertara, frantziako ehun bat pertsonalitatekin batera. 11.000 pertsona bildu ziren Parisen.

ETA erakunde armatuaren armagabetzea gauzatu zenetik urte batera, garrantzitsua iruditzen zaigu urte honen bilana egitea, momentuko erronkak eta perspektibak gogoetatzea, eta batez ere, bake prozesuaren motore izan den jendarte zibilaren perspektibetaz gogoetatzea.

Presoen egoerari konponbide bat atxemateko azken hilabete hauetan lan esparru bat sortu da frantses justizia ministeritza eta delegaritzaren artean. Azken hau gizarte zibiliko pertsonaz eta Euskal Herriko hautetsiz osatua da. Bake foroa azken hilabeteetan eman diren elkarriketen bilan bat egiteko aukera izanen da, aztertu eman diren aitzinapenak, oztopoak eta hurrengo etapak mahaingainetuko dira.

Urtearen bilanaz gain, forum hau erronka eta perspektiberi begira gogoeta eta trukaketa gune baten izaitzea xedea du. Gure iraganari kolektiboki konfrontatuz, gure geroa eraikitzeko.





EGITARRAUA

6

2018ko apirilak 6, ostirala

> Baionako CCI

Biktimak, sufrikarioak: iraganari aurre egin etorkizuna eraikitzeko

19:00 ATEEN IDEKITZEA

19:30 HARRERA

• **Pantxoa Bimboire**, Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarako Presidentearen Aholkularia

19:40 SAR HITZA

• **Michel Berhocoirigoin**, Bakegilea

20:00 MAHAIN INGURUA

• **Jean Pierre Massias**, Paue eta Aturri herrietako unibertsitateko erakaslea eta Varenne Istitutuko presidentea

• **Julen Mendoza**, Oreratako auzapeza

• **Karmen Galdeano**, GAL-ek erahildako Xabier Galdeanoren alaba.

• **Jexux-Mari Mujika**, ETA-k erahildako Joxe-Mari Korta-ren laguna.

21:30 ONDORIOAK

• **Serge Portelli**, Versailles-ko Dei Gortean epaile eta Presidentea



7

2018ko apirilak 7 larunbata

> Biarritzeko Bellevue

Euskal presoak:
Egingarritik beharrezkora

8:30 ATEEN IDEKITZEA

9:00 SAR HITZA

• **Michel Veunac**, Biarritzeko auzapeza

9:10 LEHEN MAHAIN INGURUA

« Presoen gaia irlandes bake prozesuan »

• **Harold Good**, Ostiral Sainduko akordioeen 1998) ezartze lanetan parte hartu duen irlandes apaiza

10:15 BIGARREN MAHAIN INGURUA

« Euskal presoak : salbuesenezko neurriak eta zigor antolaketak »

• **Xantiana Cachena**, Baionako Kolegioko kidea eta euskal presoen aholkularia

• **Phillippe Texier**, Ohorezko Magistratua, eta NBEko aditua

11:45 HIRUGARREN MAHAIN INGURUA

« Euskal Herriko delegazioa eta Justizia Ministeritzaren arteko lan esparrua : lehen bilan bat eta perspektibak »

• **Anaiz Funosas**, Bake Bidea mugimenduko Lehendakaria

• **Jean René Etchegaray**, Baionako auzapeza eta Euskal Herriko Hiri Elkarguneko Lehendakaria

• **Jean Noël Etcheverry** « *Txetx* », Bakegilea

13:00 ONDORIOAK

• **Michel Tubiana**, Frantziako Giza Eskubideen Ligako Ohorezko Lehendakaria



8

2018 apirilak 8, igandea

> Baionako Roland Barthes zelaigunea

11:00 ESTREINA

Koldobika Jauregi-ren

« **Arbolaren egia** » zizelanaren estreina



HIZLARIEN AURKEZPENA



PANTXOA BIMBOIRE, Baionako merkatal eta industria ganberako Lehendakariaren aholkularia da. Eskualdeko Merkatal eta Industria ganberako finantzaren diruzaina. SOKOAKo kudeatzaile eta administraria da. «Lantegiak» enpresa taldeko partaide.



MICHEL BERTHOCOIRIGOIN, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortzaileetako bat izan zen eta Ganbararen lehen lehendakaria. Confédération Paysanne sindikatuaren sortzaileetako bat ere bada, eta bertako idazkari nagusi ohia. 2016ko abenduaren 16etik Euskal Herriko Bakegilea da eta 2017ko apirilaren 8an iragan zen ETA talde armatuaren armagabetzearen bultzatzailea.



JEAN PIERRE MASSIAS, Zuzenbide publikoko irakaslea da UP-PA n eta Varennes Instituto Unibertsitarioko lehendakaria. Bake eta demokratizazio prozesuetaz eraman dituen lanentzat ezaguna, batez ere Euskal gatazkan berezitua da eta Europa ekialdeko eta Sahara beheko Afrikako trantsizio politikoetan ere lan egin du. Luzaz Europar kontseiluan aholkulari izana, 2013an Justizia Transizionalerako elkarte frankofonoaren sortzaileetarikoa bat da.



JULEN MENDOZA, Zuzenbide ikasketak bukatutak 2001-2003 urte bitartean Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzorde eta azpi-batzordeetan aritu zen. Ondoren Egunkariaren Aldeko Babes Taldean aritu zen lanean, Egunkaria kausarako nazioarteko atxikimenduak lortzeko. 2006-2011 urte bitartean

hirigintza abokatua izan zen, hasieran enpresa pribatuan eta gero Pasaiaiko udaletxean. 2011 ean udal hauteskundeetan aurkeztu eta alkate bilakatu zen, eta errepikatu 2015eko hauteskundeetan ere.



JEXUX MARI MUJIKA, 1946an jaioa Aizarnan. Donostian bizi da. Filosofia eta Geografia eta Historian lizentziatua. Etikako irakasle izan da Santo Tomas lizeoan eta Deustuko Unibertsitatean, Donostian, jubilatuta arte. Joxemari Kortaren lagun mina, BIDEKIK Fundazioaren bozeramaile da sortu zenetik.



KARMEN GALDEANO PRIETO, Karmen Galdeano Prieto, 1966 Algorta (Bizkaia). Zuzenbidean lizentziatua, Donostiako EHU Zuzenbide fakultadean, Euskal Preso politikoen abokatua 1990- 2003. 2004 tik gaur egun arte, idazkaria Sopelako Ander Deuna ikastolan. 1985 martxoaren 30ean GALEk etxe aurrean erahil duen Xabier Galdeanoren alaba. 2007an Glencree proiektuan parte hartzen du Irlandan, beste biktima ezberdinetako senitarte-koarekin bat. Gaur egun egia-ri zor-eko partaidea da, estatuko biolentzia ezberdinetako biktimak batzen duen elkarte. .



SERGE PORTELLI, Epaila. Paris-eko auzi zibilen epaitegiko lehendakari orde eta Créteileko instrukzio epaileen dekanoa izan ondoren, gaur egun Versaille- seko dei Ganberako Lehendakari kargua betetzen du. 2001/2002 urteetan justizia, barne, giza eskubide eta afera juridikoetarako Asanblada Nazioneleko Lehendakariaren kontseilari izan da. Euskal Herriaren bakearen aldeko juristen lan taldeko kidea da.



MICHEL VEUNAC, Biarritzeko Auzapeza, Komunikazioan, gizarte ingeniartzan, hiri ekologian, ku-deaketan eta erakundeen sozio-logian berezitua den psiko-sozio-logoa. Ohorezko Legioko Zaldun

eta Merezimen- duaren Nazio Ordenako Zaldun. 1989an, Brice Lalonden ondoan, politikan sartuko zen Génération Ecologi sortuz, 1995ean François Bayrou-rekin elkartu zen UDFen eta gaur egun oraindik bere alderdia den Mouvement Démocratiquen (Modem) sortzean parte hartu zuen.



HAROLD GOOD, Irlandar apez metodista bat da. 1990eko hamarkadan Ipar Irlandako Bake Prozesuan errol bakegile nabarmena izan zuen. 2001ean Ipar

Irlandako Bake Prozesuko aldi garrantzitsua adierazi zuen armagabetzearen egiaztatzaile izateko izendatu zituzten bi lekukoetako bat izan zen, Alec Reid irlandar apez katolikoa-rekin batera. 2004ean Munduko Metodisten Bakearen Saria irabazi zuen. Euskal Herriko gatazkan ere, 2017ko apirilaren 8an Baionan jazotako ETA talde armatuaren armagabetzean Bakegileekin eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideekin batera azaldu ziren bi elizgizonetako bat izan zen, Matteo Zuppi artapezpikuarekin batera.



XANTIANA CACHENAUD, Abokatua da Baionan. Euskal preso politikoen aldeko defentsan lan egiten du 2004tik. Euskal Herriaren bakearen aldeko juristen lan

taldeko kidea da.



PHILIPPE TEXIER, Nazio Batuen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen komiteko kide izan da 1987tik 2008ra, eta presidente ere izana. Frantziako kasazio gorteko aholkulari ohia da. Le Monde diplomatique egunkarian idazten du eta giza eskubideen nazioarteko federazioarekin lan egiten du. ONUSAL, Salvadorreko giza eskubideen ligako zuzendaria izan da. Populuen auzitegi

iraunkorreko epailea da. Palestinari buruzko Russell auzitegiaren babes komiteko kidea da ; lehen lanak 2009ko martxoaren 4ean aurkeztuak izan ziren. Euskal Herriaren bakearen aldeko juristen lan taldeko kidea da.



ANAIZ FUNOSAS, Bake Bidea mugimendu zibileko sortzaile eta lehendakaria (Ipar Euskal Herria). 2011ko Aieteko adierazpenaz geroztik, Euskal Herriko Bake proze-

sua markatu duten hitz ordu nagusien bultzatzailea da.



JEAN RENE ETCHEGARAY, Baionako Auzapeza, zuzenbide pu-blikoan doktore da eta Zientzia Politikoetan lizentziadun. 2017ko urtarrilaren 23an Eus-

kal Hirigune Elkargoko Lehendakari hautatu zuten eta Aturri Pirinio Hirigintza Agentziako lehendakari da ere. Azkenik, ohorezko abokatu eta Baionako abokatuen elkarteko Abokatuen Ordenako burulehen ohia da.



MICHEL TUBIANA, Giza esku-bideen ligako ohorezko lehendakari eta Pariseko dei gortean abokata. 1978an LDH-ko (Giza Eskubideen Liga) kide bilakatu zen, ondoren Idazkari nagusi bihurtuko zen 1984an, Lehendakari ordea 1995ean, Lehendakaria 2000an eta 2005ko ekainaz geroztik ohorezko lehendakaria da. Michel Tubiana Giza eskubideen sare euro-mediterraneareko lehendakaria da ere(REMDH).



JEAN NOEL "TXETX" ETCHEVERRY, Hego Euskal Herriko lehen indar sindikala den ELAko batzorde nazionalako kidea da. Aldaketa klimatikoaren aurkako

borrokan engaitua izanik, Bizi ! Mugimendu altermundialistaren sortzaileetako bat da,baira d'Alternatiba eta d'Action Non-Violente COP-21koa ere. 2016ko abenduaren 16etik Euskal Herriko Bakegilea da eta 2017ko apirilaren 8an iragan zen ETA talde armatuaren armagabetzearen bultzatzailea.